

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Muruako beheko auzoan behe-tentsioko aireko lineak lurperatzeko urbanizazio-proiektua behin betiko onartzea, Muruako Administrazio Batzarrak sustatuta

Otsailaren 3ko 50/2021 Alkatetza Dekretuaren bidez, Muruako beheko auzoan behe-tentsioko aireko lineak lurperatzeko urbanizazio-proiektua behin betiko onestea xedatu da, Muruako Administrazio Batzarrak sustatuta.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, txandaka, bi hilabeteko epean, erabaki hau iragarri eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, aldez aurretik eta aukeran, hilabeteko epearekin erabaki hau hartu denetik eta hurrengo egunetik aurrera, berraztertzeorrekurtsua aurkez daiteke erabaki hau hartu duen organo berean.

Zigoitian, 2021eko otsailaren 3an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA